



Usurbilgo Udala

2023/05/23

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO MAIATZAREN 23AN
GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Beñat Larrañaga Urdanpilleta eta Ainhoa Arrozpide Landa.

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel.

Ez dira bertaratu: Lur Etxeberria Gurrutxaga eta Joxe Mari Iribar Zapirain.

1.- 2023KO MAIATZAREN 8KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2023ko maiatzaren 8ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- KALEZARKO ZAPATARI KALEA 2 ETXEA ERABERRITU ETA BERTAN 3 ETXEBIZITZA MOLDATZEKO OBRETARAKO UDAL BAIMENA EMATEA (2022OHAN0012).

ESP.ZK.: HZ.04/2022-0203
2022-OHAN-0012

MIKEL ERRASTI LOPETEGI jaunaren ordezkartzan diharduen ALEZ PATRICIO ASTUDILLO LARRAZ arkitektoak, Kalezarko Zapatari kalea 2 etxea eraberritu eta bertan 3 etxebizitza moldatzeko udal baimena eskatu du.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	250.555,00 € (kalitate-kontrola kontuan hartu gabe)
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberrako hobariak ez dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.651,39 €
	Fidantza (%120): 1.981,67 €.

TXOSTEN TEKNIKOAK

Aurkeztutako Oinarrizko Proiektua eta espedienteko gainontzeko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, 2023ko maiatzaren 12an ALDEKO txostena eman du.



Usurbilgo Udala

2023/05/23

KONTROLARKEOLOGIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak, 2023ko apirilaren 3an helarazi du Zapatari 2an proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenaren jakinarazpena. Hitzez hitz honela dio:

2023ko apirilaren 3an Kultura Zuzendaritzak EBAZPENA eman du:

2023-04-03

GAIA: Kontrol arkeologikoa

LEKUA: Zapatari 2

HERRIA: Usurbil

INTERESDUNA: Mikel Errasti Lopetegui

ZUZENDARIA: Zohartze Galan Zumeta

ERREGISTRO ZK: 1.424 **ESPEDIENTE ZK:** 014/2023

Mikel Errasti Lopetegui idatzi bat aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Departamentu honetako sarrera erregistroan. Idatzi horretan baimena eskatzen da goian aipatzen den proiektu Zohartze Galan Zumeta arkeologoaren zuzendaritzapean.

Hori guztia ikusirik dagokion txostena eman dute Departamentu honetako zerbitzu teknikoek, eta bertan diote ez dutela eragozpenik ikusten aurkeztutako proiektu arkeologikoa ontzat emateko.

Azaldutako guztia kontuan harturik, eta dagokion zerbitzu teknikoek egindako txostena ikusirik, dituen eskumenak erabiliz, Kulturako zuzendari Nagusi honek, honako hau,

EBATZI DU

Lehena.- Interes Arkeologikoa aitortu aurkeztutako jarduketari, eta ondorioz baimena ematea Zohartze Galan Zumetari eta bere izenean Mikel Errasti Lopetegui goian aipaturiko proiektu arkeologikoa gauzatzeko. Hala izango da Euskal Kultura Ondareko 6/2019 Legearen 66.1 artikulua ezartzen duena betetzeko, zuzendaritza nagusi honen esku dagoen arloan, eta beti ere, jarraian aipatzen diren honako baldintza hauek betetzen badira:

- Lanen hasiera eta amaiera GFA-ko Departamentu honi jakinarazi beharko zaio. Hasiera astebeteko aurrerapenarekin gutxienez eta amaiera aste bete pasa ondoren gehienez.
- Kata arkeologikoa bukatu bezain laster, berriro estali beharko dira lurrak, aurretik zeuden moduan utziaz.



Usurbilgo Udala

2023/05/23

- Baimen honi dagokion txostena paperean eta formatu informatikoan (Word, Pdf) aurkeztu beharko da bere garaian.
- Baimenaren titularrak berak zuzendu beharko ditu jarduera arkeologikoak eta jarduera horiek bertatik bertara ikusi beharko ditu.
- Baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla medio, titularrak jarduerak bertatik bertara zuzentzea ezinezkoa badu, horren berri eman beharko dio kasuan kasuko GFAko Departamentu honi eta bere erantzukizuna beste pertsona baten esku utzi beharko du, zeinak titularra ez dagoenean jardueren zuzendaritza bere gain hartzeko zenbait baldintza bete beharko baititu, titulazioari, gaitasun profesionalari eta behar besteko ezagutzari dagokienez.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen du berak egindako oroitidazki zientifikoa Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiaren Arkeologia Artxiboan egon dadin baita ere Foru Aldundiaren Web orrian eskegita edonork kontsulta ahal dezan.
- Baimenaren onuradunak baimena ematen dio GFA-ri Kultura Zuzendaritza Nagusiari aurkeztu dion materiala zabalkunde lanetarako erabili ahal dezan. Nolanahi ere, argazkien egilea edo jatorria.

Bigarrena.- Arkeologi zundaketaren ondorioz aparteko aztarna arkeologikorik azalduz gero, berehala berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentu honi, bidezko izanez gero, beharrezkoak suertatzen diren neurriak hartu ditzan.

Hirugarrena.- Baimen hau hirugarrenen kalterik gabekoa da, eta ez du salbuesten lanak egin aurretik derrigorrezkoak diren beste baimenak eskatu behar izatea, ezta bere edukia aurreikusten.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari. Hortaz, ebazpen honen aurka **GORA JOTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokete interesatuek Kultura, Lankidetzeta, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita **HILABETEKO** epean. Dena dela, egoki derirotzen beste edozein aurkez daiteke.

Jakin dezazun eta bidezko ondorioetarako igortzen dizut.

Kulturako zuzendari nagusia

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:



ERABAKIA

LEHENDABIZI: MIKEL ERRASTI LOPETEGI jaunaren ordezkartzan diharduen ALEZ PATRICIO ASTUDILLO LARRAZ arkitektoak, Kalezarko Zapatari kalea 2 etxea eraberritu eta bertan 3 etxebizitza moldatzeko obretarako udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- KBIO S.L.P. arkitektura eta hirigintza bulegoko Alex Astudillo Larraz eta Alfonso García-Borreguero Viota arkitektoek 2022ko apirilean idatzitako Oinarrizko Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- **Obrak hasi aurretik**, elkargo ofizialak ikus onetsitako **Exekuzio Proiektua** aurkeztu beharko da. Proiektu horrek oinarrizko proiektuaren parametroak errespetatu beharko ditu (eraikinaren altuera, lerrokadurak...). Horrez gain, hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzua arautzen duen ordenantzari eta EKT-ri jarraiki, eraikinak hondakinen biltegirako gela izan beharko du, udal ordenantzak (20. artikulua) eta EKT-k (DB HS 2) ezarritako baldintzak beteko dituen.
- **Obrak hasi aurretik, 15 eguneko epean:**

Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 1.651,39 eurotako da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.981,67 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.981,67 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Fidantza: 2022-OHAN-0012*" jarriaz kontzeptuan.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentuko Kultura Zuzendari Nagusiak proiektu arkeologikoa gauzatzeko emandako baimenean zehaztutako baldintzak bete beharko dira.
- EKT ETA GAINONTZEKO ARAUDIA: Edonola, indarrean den araudia bete beharko da, bai EKT bai aplikagarria den gainontzeko araudia: Behe-Tentsioko Erreglamendu Elektroteknikoa (BTEE), Eraikinetako Instalazio Termikoen Erreglamendua (EITE), etab.

IRISGARRITASUN ARAUDIAREN BETETZEA: Ezinbestean bete beharko da indarrean diren EKT-DB-SUA eta Irisgarritasun Araudia (1997ko Legea eta ingurune hiritar eta eraikinetako arau teknikoei buruzko 68/2000 Dekretua). Aurkeztutako justifikazioa ontzat eman daiteke.



Usurbilgo Udala

2023/05/23

- **LURZORU PUBLIKOAREN OKUPAZIOA:** Obralanak egiteko lur publikoa okupatu beharko balitz, dagokion baimena lortu beharko da.
- **Obra baimenaren epeak:**
 - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
 - Obraren egikaritza epe gehiengoa: 12 hilabete.
- **AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK:** Sustatzaileak udal-zerbitzu teknikoei eskatuko dizkie, hala badagokio, udal-zerbitzuen sareekiko loturak gauzatzeko beharrezko baldintzak eta jarraibideak.
- Telekomunikazio-zerbitzuetara sartzeko eraikinetako azpiegitura komunei buruzko otsailaren 27koa 1/1998 Errege Lege Dekretuaren arabera, **Telekomunikazio Azpiegituren proiektua aurkeztuko da.**
- **Urriaren 21eko 250/2003 Dekretuaren arabera, Eraikinaren Liburua osatu beharko da, berau jasotzeko dagokion armairua prestatuz. Armairuaren gutxieneko neurriak honako hauek izango dira: 0,50m²ko planta-azalera, eta metro bateko altuera. Suaren eta hezetasunaren aurkako materialez egina beharko da, sarrailadun ate eta guzti. Eramateko modukoa bada, eraikineko elementu finkoei behar bezala lotuta egon beharko du, mugitu ez dadin. Armairu edo gune hori eraikinaren alde edo toki komunean jarriko da, erraz eskuratzeko moduan, baina ez da gela hezeetan edo instalazioetarako baino ez direnetan ipini beharko da.**
- **OBRA AMAIERA:** Obra amaitu ondoren, Usurbilgo Arau Subsidiarioen araudi orokorraren 16. artikuluari jarraiki, lehen erabilerako baimena lortu ahal izateko, eskerarekin batera honako dokumentuak aurkeztu beharko dira, besteak beste:
 - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla (balizko eraldaketak), ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.
 - Egiaz burututako lanaren planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.
 - Eraikin edo instalaketan kanpoaldearen argazkiak.
 - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidatzea, lan eta instalaketan egiazko kostea adieraziz.
 - Obra berriko deklarazioaren eskrituraren kopia.
 - Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren alta.
 - Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik, elektrairindarraren hornikuntza sareko "Loturako Buletina"ren kopia eta, kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalatzeari dagokion Egokitasun Egiaztagiriaren kopia.



- **Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:**
 - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
 - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
 - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
 - Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabeko segurtasun neurriak beteko dira.
 - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

3.- KALE NAGUSIA 10 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILU BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2022OHAN0031).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0446
2022-OHAN-0031

KALE NAGUSIA 10 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20099859) ordezkartzan diharduen ALFONSO ENCIO MÚGICA jaunak, Kale Nagusia 10 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2022ko otsailaren 1ean, zera erabaki zuen: KALE NAGUSIA 10 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20099859) ordezkartzan diharduen ALFONSO ENCIO MÚGICA jaunari, Kale Nagusia 10 etxean igogailua jartzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	135.302,49 €
Obra amaierako ziurtagiria:	168.845,56 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.b artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.170,50 €
	Fidantza (%120): 1.404,60 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA



Usurbilgo Udala

2023/05/23

Orain berriz, KALE NAGUSIA 10 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20099859) ordezkartzan diharduen ALFONSO ENCIO MÚGICA jaunak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko maiatzaren 5ean, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Kale Nagusia 10 etxean jarritako igogailu berriari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko martxoaren 29an ezarritako 1.404,60 €-tako fidantza (IE 6-2022) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES41 2095 5009 7710 6092 9030.

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.

4.- SANTUENEA 16 ETXEAN JARRITAKO IGOGAILU BERRIARI LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2023OHAN0012).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2021-0328
2023-OHAN-0012

SANTUENEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20712063) ordezkartzan diharduen ELENA ASUMENDI ZABALA andereak, Santuenea 16 etxean jarritako igogailu berriaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko azaroaren 30ean, zera erabaki zuen: SANTUENEA 16 ETXEKO JABEKIDEEI (IFK: H20099859), Santuenea 16 etxean etxean igogailua jartzeko



Usurbilgo Udala

2023/05/23

udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	170.558,02 €
Obra amaierako ziurtagiria:	177.364,76 €
Obrari dagozkion hobariak:	% 90 hobaria (Ordenantza Fiskalak, VII. Hobariak, 11.d artikulua) dira aplikagarriak.
Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 865 € Fidantza (%120): 1.038 €

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, SANTUENEA 16 ETXEKO JABEKIDEEN (IFK: H20712063) ordezkartzan diharduen ELENA ASUMENDI ZABALA andereak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, jarritako igogailuaren lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancon jaunak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko maiatzaren 12an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartuko du.

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: Santuenea 16 etxean jarritako igogailu berriari lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2022ko ekainaren 30ean ezarritako 1.038 €-tako fidantza (IE 27-2022) itzultzeko agintzea kontuhartzaitzari honako kontu zenbakian: ES86 2095 5069 0810 6980 3616.

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabakia berri interesatuari ematea.



Usurbilgo Udala

2023/05/23

5.- USURBILGO JOALDUNEN ELKARTEA UJE ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA (2023IEUE0001).

Ikusita

Jokin Eizagirre Sagardiak, Usurbilgo Joaldunen Elkarte UJE-ren ordezkari gisa, aipatutako elkarte Usturbilgo Elkarte Udal Erregistroan inskribatzeko eskabidea egin du 2023ko apirilaren 5ean.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntu aipatzen den dokumentazioa aurkeztu du.

Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariak aipatutako elkarte irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin du.

Kontuan hartuta

- Udalaren irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).
- Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehen: USURBILGO JOALDUNEN ELKARTEA UJE irabazi asmorik gabeko elkarte udal erregistroan inskribatzea.

Bigarrena: Erabaki hau Usurbilgo Joaldunen Elkarte UJeri jakinaraztea.

Hirugarrena: Erabaki honen berri kultura, euskara eta gazteria sailari ematea.

6.- BUSTIN ZULO USURBILGO ZERAMIKA TALDEA ELKARTEEN UDAL ERREGISTROAN INSKRIBATZEA (2023IEUE0002).

Ikusita

Miguel Angel Goenaga Etxeberriak, Bustin Zulo Usurbilgo Zeramika Taldea elkartearen ordezkari gisa, aipatutako elkarte Usturbilgo Elkarte Udal Erregistroan inskribatzeko eskabidea egin du 2023ko apirilaren 20an.

Eskabidearekin batera, irabazi asmorik gabeko elkarte erregistroari buruzko ordenantzaren hirugarren puntu aipatzen den dokumentazioa aurkeztu du.



Usurbilgo Udala

2023/05/23

Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariak aipatutako elkartea irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroan inskribatzearen aldeko txostena egin du.

Kontuan hartuta

- Udalaren irabazi asmorik gabeko elkarteen erregistroari buruzko ordenantza (GAO 2005/08/18).
- Kultura, euskara eta gazteria saileko teknikariaren txostena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehena: BUSTIN ZULO USURBILGO ZERAMIKA TALDEA elkartea irabazi asmorik gabeko elkarteen udal erregistroan inskribatzea.

Bigarrena: Erabaki hau Bustin Zulo Usurbilgo Zeramika Taldea elkarteari jakinaraztea.

Hirugarrena: Erabaki honen berri kultura, euskara eta gazteria sailari ematea.

7.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023UDIE0001).

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin. Horretarako, Ordenantzaren arabera, bitartekoetako bat euskararen zabalpen funtzionala da, alegia, euskaldunen kopurua handitu eta haien ezagutza hobetzea, euskara ez dakitenek ikasi dezaten bideak jarri, eta dakitenak alfabetatu daitezen bitarteko egokiak bideratzea.

Usurbilgo Udalak oso garrantzitsu irizten dio helduen euskalduntzean eta alfabetatzean eragiteari. Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2022-2023 ikasturtean zehar euskalduntze ikastaroetara joan diren Usurbilgo biztanleei beka emateko.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A



Usurbilgo Udala

2023/05/23

Lehenengoa: 2023ko euskara ikastaroak egin dituztenentzako dirulaguntzen oinarri Arautzaileak onartzea.

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa, 24.500 €, partida honetatik bideratzea:
1.4200.480.335.00.01 2023

Hirugarrena: Oinarriari buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus webgunean argitaratzea.

Laugarrena: Erabaki honen berri kontu-hartzaileari ematea.

8.- AISIALDIKO BEGIRALE EDO ZUZENDARI IKASTAROAK EGIN DITUZTENENTZAT DIRULAGUNTZA OINARRIAK ONARTZEA (2023UDIG0001).

Ikusirik

Usurbilgo Udaleko Euskararen Ordenantzak bere 39. artikuluan dio Udalak neurri egokiak hartuko dituela euskara gizarte esparru guztietan erabil dadin eta, oro har, gizarte bizitzan euskararen presentzia gehi dadin.

Aisialdia gizarte bizitza horretako zati bat da eta gure gizartean gero eta garrantzia handiagoa duena gainera.

Aisialdiko begirale eta zuzendariak berariaz eta era egokian prestatua egotea garrantzitsua ikusten du udalak. Are gehiago, prestakuntza hori euskaraz jasotzea garrantzitsua iruditzen zaio udalari.

Horregatik hain zuzen ere, aurrekontu partida bat ezarri du 2022-2023 ikasturtean zehar aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketak egin dituztenentzako biztanleei bekak emateko.

Bide honetatik, Usurbilgo Udalak aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa egin dutenentzat dirulaguntzak bideratzeko dirulaguntza oinarriak prestatu ditu.

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituenak.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- Usurbilgo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2023-2025.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

Lehenengoa: 2022-2023 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroak euskaraz egin dituztenentzako dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea.



Usurbilgo Udala

2023/05/23

Bigarrena: Dirulaguntzaren zenbatekoa, 3.500 €, partida honetatik bideratzea:
1 4400 481 326 00 01 2023

Hirugarrena: Oinarriei buruzko iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udaletxeko iragarki taulan eta www.usurbil.eus webgunean argitaratzea.

Laugarrena: Erabaki honen berri kontu-hartzaileari ematea.

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzaraldia bukatutzat eman du, goizeko 09:50k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.